

Hizkuntza gutxituaren inguruko diskurtso emergenteak Euskal Herrian:


DISKURTSOAK ETNIZITATETIK HARATAGO

EUSKARAREN ALDEKO DISKURTSO EZ HITZ EGITEA HELBURUA

(Eta ez, euskarari buruzkoez)

EUSKARAREN ALDEKO ZEIN DISKURTSO IZAN DITUGU ORAIN ARTE?

- Euskararen aldeko diskurtsoen muina: ETNIZITATEA/ IDENTITATE NAZIONALA
 - Euskara euskal identitatearen oinarrian (Arraza eta hizkuntza) eta euskararen defentsa ere hortik



Euskalduna Euskal Herrian lan eta bizi den oro da. Hori ere gure proiektu nazionalaren ADNan dago.

[#AldaketaDaOrain](#)



ETNIZITATETIK HARATAGOKO DISKURTSOAK: Ideia eta erabilerarako gako, argudio... berrien bila

- Diskurtso identitariotik haratagoko diskurtsoak; gune ezberdinetatik sortzen:
 1. Hastapenak: Iñaki Martinez de Luna (2010; 2013; 2016) eta EAB (2016)
 2. Mugimendu sozialak: Feminismotik eta Mugimendu Sozialistatik (2023 SLJ)
 3. Eremu sozioekonomikoan

GURE HARIA: Identitatetik haratagoko diskurtsoak

HASTAPENAK:

- Diskurtsoen azterketa: Framing aldarrikatzailea eta uzkurra (Martinez de Luna, 2010)

DISKURTS BERRIRAKO KONTZEPTUAK
Martinez de Luna, 2016
IDENTITATEA: Identitate zabalagoa (Politizazioaren/partidismoaren “mamua”)
BIZIKIDETZA: Gatazka kutsua saihestu
BERDINTASUNA: Bizikidetzarako giltza
ERRESPETUA: Bizikidetzarako giltza
ANIZTASUNA: Hizkuntza ekologiaren teoriari jarraiki
ERANTZUKIZUNA: Denok ardura hartu beharra
JUSTIZIA: Borondatea ez ezik, lege markoa (Justizian oinarritua)

DISKURTSO BERRIRAKO GAKOAK
EAB, 2016
Diskurtsoaren despolitizazioa bilatu
Aldeko aldarria egokitu eta malgutu
Limurtzearen bidea landu
Euskara bestelako bizipenekin lotu, eremu formaletik haratago
Euskara balio positiboekin lotu
Euskararen irudia modernizatu
Euskararen zuzentasunaren exigentziak orekatu

BIRPOLITIZAZIOA ETA IRAKURKETA TEORIKO BERRIAK

FEMINISMOTIK:

- EEBA – Euskal Emakumeak Beren Askatasunaren Alde-: 70eko hamarkadan, zapalkuntza hirukoitzaz hitz egin zuten
- INTERSEKZIONALITATEA tresna analitiko:
 - *“Elkargunearen –Interseksionalitatearen- teoriatik begiratzen badugu, euskara botere sare batean ikus dezakegu, ez soilik hizkuntzen borroken gisara, baizik eta pertsonen posizionamendu eta praktika soziopolitiko gisara. Alegia, eskubide, pribilegio, **justizia sozial**, botere eta demokrazia ardatzetan ere jokatzen da hizkuntza”* (Eskisabel eta Agirre, 2017: 22).
 - Menderakuntza estrategia: *Naturalizazioa*
- Euskararen aldeko diskurtsoa: **Eskubide sozial** edota justizia sozialaren parametroetan – Pribilegioidunen interpelazioa

BIRPOLITIZAZIOA ETA IRAKURKETA TEORIKO BERRIAK


MUGIMENDU SOZIALISTATIK:

Analisirako kategoria sozial berri baten proposamena: KLASEA

(...) “badago korrelazio bat errenta-mailaren eta euskararen presentziaren artean; zenbat eta errenta-maila altuagoa izan, euskararen presentzia orduan eta nabarmenagoa da, oro har. Ondorio bera adierazteko beste modu bat litzateke esatea errenta-maila baxuko biztanleen artean oso murrizta dela euskararen presentzia, hainbat eremutan. Bestalde, ondorioztatu daiteke errenta altuaren eta euskalduntasunaren arteko erlazioak badituela bere mugak, eta errentarik altuenak dituzten sektore sozialetan ere murrizta dela euskararen presentzia” (Arteka, 2020: 24).

Euskara oposizio elementu = Zapalkuntza oro gainditzearekin batera – PROIEKTU SOZIALISTAN

ETA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN ZER?



- Lehiakortasunaren kontzeptua zabaldu: Ekonomikotik, arlo soziala eta ingurumena barnebiltzera – *“Lehiakortasuna bere inguruan balioa eta ongizatea sortzen duen aldagai multzo”*
- Euskara planaren bidez --> lehiakortasuna indartu

PENTSATZEN JARRAITZEKO...

Bi kontzeptu:

- Soziolinguistika kritikotik: HIRITARTASUN LINGUISTIKOA (Stroud, 2015)
- Queer linguistikatik: DESIRA (Kulick, 2000; Cameron eta Kulick, 2003)



Korrika da herri bat gose iraun baino, haginka. Herri anbiziotsu bat ez baita husten agiritan.

“Mintzairaren seta guk dugu, erromantiko porrokatuok, pikuan bizi garenok, zozook”. Halaxe zioen, ironiaz, zozo egoskor batek. Hegazti harrapari guztiek ehizatzen dute zozoa, gautarrek nahiz egunekoek. Ez omen du primaderan kantatzen, eta gure lurretan urriago dira pinu eta eukalipto birlandaketetan, tokiko baso autoktonoetan baino. Arrainak ura, eta euskarak ekosistema osoa. Hizkuntzaren dimentsio guziak izan ditzan hiztunak, gizartearen arlo oro busti beharko du hizkuntza-politikak: basoak, soroak, plazak, lantegiak, pantailak, iruditeria. Egunerokoa hartu behar du biziko bada, Beskoitzen, Eguesibarren zein Bizkarsoro orotan.

Baina hemen gara, zozoen elean.

Ez altxor, ez oroitari, ez toponimia. Euskarak hegemonia hartzeaz ari gara. Ez agur bat, ez txapa bat paparrean, ez lur zatitu bat. Ez da fenomeno meteorologiko bat, ez gastronomia huts, ez borondate libreko kontsumogai. Ez da brilli-brillizko bilgarria, ez trukerako txanpona. Ez da beste, ez besteena. Eta batez ere, batez ere, ez da diskriminazio iturri, ez inposizio. Bedi gutxiago konpetentzia, eta gehiago konpromiso, norabide, zeharlerro, harrobi-de. “Gutarik bakoitzak anitz hizkuntza ukan ditzake; euskarak gu baizik ez gaitu”. Halaxe zioen beste zozoren batek. Nor izatearen aitorza, horixe dugu euskara: ez gehiago, ez bestelako, ez gutxiago. Oxala, hizkuntza bat balitz, eta fini.

Bestela esanda, ez dugu hazkunde lasterreko espezieen industria laborerik nahi, tokian tokiko basoak nahi ditugu, hangok eta hemengok babes hartzeko eta bere egiteko, non zozoak izanen duen non kukutu, ibaiak nora isuri, ondoak zeri heldu, eguzkiak zer urtu.

Kontingentzia planik ez: egiazko trantsizioa nahi dugu.

Eta izanen bada, kolektiboa, antolatua eta lotsagabea izan beharko du. Elkar zainduz, bidea bizigarri egin. Afektuaz ere ari baikara, afektatzeaz. Konplexurik gabe. Erabakitasunez bezala ahizpatasun haizez. Tinko eta fermuki, ados, baina amultsu, narras, hauskor ere bai.

Gorputzetik pasako baita, halabeharrez. Desira bada transmisiorako bide behinena, ez dugu ahazteko hizkuntzaren auzia politikoa dela. Eta urgentziakoa. Desira historia batean hasten da. Gurea egunero idazten, kontatzen, egiten gabiltza, gero bat gaurdanik sortzen, euskarari bere lekua munduan eta geroan finkatzen. Mundu oso bat kabitzen baita euskararen. Noranahiko, euskaraz gara.

Udaberrian ere kantatuko dugu zozoak. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du. Esna dadila piztita, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten.

Biba korrika, harro herria!

Garazi Arrula Ruiz

Gorputzetik pasako baita, halabeharrez. Desira bada transmisiorako bide behinena, ez dugu ahazteko hizkuntzaren auzia politikoa dela. Eta urgentziakoa. Desira historia batean hasten da. Gurea egunero idazten, kontatzen, egiten gabiltza, gero bat gaurdanik sortzen, euskarari bere lekua munduan eta geroan finkatzen. Mundu oso bat kabitzen baita euskararen. Noranahiko, euskaraz gara.

Garazi Arrula, 2024.

